

CARITASEN KANPAINA

2013eko abenduaren 22

ABENDU ALDIKO IV. DOMEKEA (A)

«Eguberriak, itxaropenaren aukera barriak»

‘Neurriz bizi eta behartsuen neurria igoarazi’

Liturgi lagungarriak

Atarikoak:

- ✿ Liturgi lagungarri honeek lekuan lekuko beharizanetara egokitu behar dira. Horretarako, Caritasetik bialtzen diran lagungarriak irakurtea komeni da.
- ✿ Egokia da kartelak sasoiz ipintea eta aurreko domekan jardunaldiaren barri emotea.
- ✿ Egokia litzateke parrokiako Caritas taldeko boluntarioek gaurko ospakizunetan buru-belarri parte hartzea.
- ✿ Jardunaldi eta diru-batze desbardinatarako argibideak kontuan hartuta, gaurkoa sarrerako oharrean, Jainko herriaren otoitzean eta dirua batu aurreko oharrean aitatuko dogu.
- ✿ Homiliaren oinarria, ohikoa danez, hots egindako Jaungoikoaren hitza izango da. Kanpainaren inguruko bidezko aitamenterako, Caritasek bialtzen dituan lagungarriak irakurri.

SARRERAKO OHARRA

Anai-arrebok: Gabonen atarian gagoz. Abendu aldiko azken domeka honetan Maria itxaropenaren Amabirjinagan jarriko doguz gure begiak. Berak erakutsiko deusku Jaungoikoari entzuten, Jaunagaz egoten, Jauna maitatzen eta onartzen.

Caritasek “Gabonak, itxaropenaren aukera barriak” mezua helarazo gura deusku gaur. “Bizi soiltasunez beste batzuk, beste barik, bizi daitezkan” Caritasen kanpainaren eskutik, soiltasunez, besteagana zabalik, mundu hobea eta zuzenagoa egin daitekela sinistuz, itxaropenari bideak zabaltzen deusguzala ikusi daikegu. Caritasek arrazoi ugari dau itxaropenean sinisteko, bere jardueren bidez bizitzeko. Gure zeinu, aukera, jarreraren bidez, itxaropenaren iragarle gara danentzat.

CAMPAÑA DE CÁRITAS

22 de diciembre de 2013

IV DOMINGO DE ADVIENTO (A)

«Navidad es tiempo de esperanza»

‘Vive sencillamente para que otros sencillamente puedan vivir’

Subsidios litúrgicos

Notas previas:

- ✿ Recordemos la necesidad de que estos subsidios se adapten a las circunstancias de cada comunidad. Para ello es muy conveniente leer los materiales que envía Cáritas.
- ✿ Es muy oportuno poner los carteles con tiempo y avisar de la Jornada el domingo anterior.
- ✿ Estaría bien que el voluntariado de Cáritas de la parroquia participe para activamente en las celebraciones de hoy.
- ✿ Respetando las orientaciones dadas para la celebración de las Jornadas y colectas, hacemos mención de la de hoy en la monición inicial, en la oración de los fieles y en la monición que motiva la colecta.
- ✿ La homilía se basará, como de ordinario, en la palabra de Dios proclamada. Para la oportuna aplicación y referencia a la Campaña sugerimos la lectura de los materiales que Cáritas envía

MONICIÓN INICIAL

Hermanas y hermanos: Estamos a las puertas de la Navidad. Este último domingo de Adviento nos invita a fijarnos en María, la Virgen de la esperanza. Ella nos enseñará a escuchar a Dios, a estar con Él, a amarlo y a recibirlo.

Cáritas se acerca a nosotros este domingo con este mensaje: “Navidad es tiempo de esperanza”/ Eguberriak, itxaropenaren aukera barriak”. En el marco de la campaña de Cáritas “Vive sencillamente para que otros, sencillamente, puedan vivir”, somos testigos de que viviendo desde la sencillez, desde la apertura al otro, desde la confianza en que es posible un mundo mejor y más justo, abrimos caminos a la esperanza. Cáritas tiene muchas razones para creer en la esperanza, para vivirla a través de sus acciones. A través de nuestros gestos, opciones, actitudes, somos anuncio de esperanza para otros.





Ekin deiogun Hitzaren eta Eukaristia-
ren ogiaren indarra emongo deuskun ospaki-
zuna.

SARRERAKO ABESTIA

ABADEAREN AGURRA

Gure salbatzera datorren Jauna, zuekin.

KORONAREN ZEINUA ETA DAMU OTOITZA

Laugarren kandela biztean, Ama Maria
dogu gogoan. Inork ez eban berak besteko
irrika eta maitasunez itxaron. Honan prestatu
gura dogu: senidetasunean eta konpromisoan,
balio horreek garatu ezkerro gizarte gizatiarra-
goa egingo dogulako alkarregaz.

—*Kantu egokiren bat abesten dan bitartean lauga-
rren kandela biztu ondoren, esan:*

- Ilunpetan bizi diranak argitzera zatozan
munduaren argia. *Erruki, Jauna.*
- Zure herriari zuzentasunezko bideak za-
baldu gura deusazuzan gidaria.
Kristo, erruki.
- Gure makaltasunaren zauriak osatzera za-
tozan bizi-iturria. *Erruki, Jauna.*

OHARRA 1. IRAKURGAIARI (Is 7, 10-14)

Isaias profeteak ezusteko zeinua iragar-
ten dau: bere herria salbatzera etorriko dan
Emmanuelen zeinua.

OHARRA 2. IRAKURGAIARI (Err 1,1-7)

Jaungoikoaren Semea giza leinuko on-
dorengo apal lez jaioten da, haragian sortuta-
koen izaera gogorraren pean. Hauxe da Barri
Ona eta danok gara horren eroaleak.

OHARRA EBANJELIOARI (Mt 1, 18-24)

Jaungoikoaren Semea gure antz eta
irudiko jaiotean, Jaungoikoa gugaz dago. Ma-
riak bere sabelean daroan umea Espiritu San-
tuagandik dator, Jesus —Jaunak salbatu egiten
dau— da bere izena eta Josek semetzat hartuko
dau jainko hautaketari erantzunez.

Iniciamos la celebración en la que re-
cibiremos la fuerza del pan de la Palabra y de
la Eucaristía.

CANTO DE ENTRADA

SALUDO DEL PRESIDENTE

El Señor, que viene a salvarnos, esté
con todos vosotros.

GESTO DE LA CORONA Y ACTO PENITENCIAL

Al encender hoy la cuarta vela, pensa-
mos en María, la Madre. Nadie esperó con
más ansia y amor. Nosotros queremos prepara-
rnos así: En la fraternidad y en el compro-
miso, dos valores con los que podemos hacer
entre todos una sociedad más humana y más
humanizadora.

—*Se enciende el cuarto cirio y puede cantarse un
canto adecuado. A continuación, se dice:*

- Luz del mundo, que vienes a iluminar a
quienes viven en tinieblas:
Señor, ten piedad.
- Guía de la humanidad, que quieres abrir
a tu pueblo sendas de justicia:
Cristo, ten piedad.
- Fuente de vida, que vienes a curar las he-
ridas de nuestra debilidad:
Señor, ten piedad.

MONICIÓN A LA 1ª LECTURA (Is 7, 10-14)

El profeta Isaías anuncia un signo
inesperado: el signo del Emmanuel que ven-
drá a salvar a su pueblo.

MONICIÓN A LA 2ª LECTURA (Rm 1,1-7)

El Hijo de Dios nace como un humilde
descendiente de una estirpe humana, some-
tido a la dura condición de quienes nacen en
la carne. Esta es la Buena Noticia de la que
todos somos ministros.

MONICIÓN AL EVANGELIO (Mt 1, 18-24)

Por el nacimiento del Hijo de Dios en
nuestra carne tenemos a Dios-con-nosotros.
La criatura que hay en María viene del Espí-
ritu Santo, se llamará Jesús —El Señor sal-
va— y José lo adoptará respondiendo así a la
elección divina.

JAINKO HERRIAREN OTOITZA

Otoitz egin daigun, Jaungoikoaren Semeak gizadi osoaren bidea barritu daian.

- Eleiz alkartean senidetasuna nagusitu daiten, harrera, integrazioa, alkarbanatzea eta bizikidetzaz suspertuz.

Eskatu deiogun Jaunari.

- Caritasek eta bertan jarduten dabenek, hitzez eta egitez, itxaropena eroan deien gizon eta emakume guztiei.

Eskatu deiogun Jaunari.

- Munduko agintariak zerbitzari izan daitezala batez be behartsu eta baztertuentzat.

Eskatu deiogun Jaunari.

- Gure denporea, ondasunak, trebetasunak... gehien behar dabezanei eskaini deieguzan euren errealitatea geure eginez.

Eskatu deiogun Jaunari.

Jaungoiko Jauna, entzun gure otoitzak eta, Mariaren antzera, geuk be zure hitza entzun daigula eta fedean esaneko izan gaitetzala. Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

OHARRA DIRUA BATU AURRETIK

Caritasek pobretasunez eta bazterketaz jantzitako errealidadei erantzun gura deutse, bidebakokeriak salatuz, jentearen sentiberatasuna biztuz eta pobretasunaren aurka burrukatuz, gizon eta emakume guztien osoko garapena lortze aldera. Hirurogeta lau mila boluntarioren laguntzai esker, Caritasek jarduerak itxaropenaren eta gizartearen aldaketaren zeinu dira.

Gaur batzen dan dirua Eleizbarrutiko Caritasek esku itzikiko dogu. Diru horren onuradunen izenean, eskerrik asko eskuzbaltasunez jokatzegaitik.

ORACIÓN UNIVERSAL

Unámonos en la oración para que el Hijo de Dios renueve el camino de la humanidad entera.

- Para que la Iglesia sea siempre comunidad cuyo distintivo es la fraternidad que acoge, integra, comparte y convive.

Roguemos al Señor.

- Para que Cáritas y quienes colaboran con ella, con sus acciones y palabras hagan que todos encuentren un motivo para seguir esperando.

Roguemos al Señor.

- Para que quienes tienen poder en el mundo sean modelo de servicio y entrega, especialmente a los excluidos y así sea posible una sociedad donde cuenten todas las personas.

Roguemos al Señor.

- Para que todos nosotros aprendamos a compartir algo de nosotros con quienes más lo necesitan: tiempo, bienes, habilidades... y nos dejemos tocar por su realidad. Roguemos al Señor

Roguemos al Señor.

Señor Dios, escucha nuestras plegarias, y haz que, como María, también nosotros sepamos escuchar tu palabra y obedecer a la fe.

Por Jesucristo, nuestro Señor...

MONICIÓN A LA COLECTA DE DINERO

La acción de Cáritas consiste en dar respuesta a las realidades de pobreza y exclusión social de nuestra sociedad a través de la denuncia, la sensibilización y la lucha contra la pobreza, favoreciendo el desarrollo integral de todas las personas. Gracias al compromiso gratuito de más de 64.000 personas voluntarias, las acciones de Cáritas son un signo de esperanza y transformación de nuestra sociedad.

La colecta de hoy será destinada a Cáritas Diocesana. En nombre de quienes se han de beneficiar de ella, gracias a todos por vuestra generosidad.





HAUSNARKETA:

Joan Paulo II.a dohatsua, Gabonen misterioari buruz hausnartzeko audientzia orokorrean:

“Abendu aldiak bizirik eusten deuto Kristoren itxaroteari. Berau gugana etorriko da bere salbamenagaz, zuzentasun eta bakezko Erreinua erabat gauzatuz. Mesias Belenen jaio zala gogoratzek zertan bat barritzen dau fededunen bihotzean: Jaungoikoak bete egiten dituala bere agintzariak. Abendu aldia, beraz, gure esperientzia pertsonal eta komunitarioan eragin sakona dauan itxaropenezko iragarpen eraginkorra da.

Gizaki guztiok amesten dogu mundu zuzen eta solidarioagoa, bizi baldintza duinek eta bizikidetasun baketsuak eraginda gizabanako eta herrien arteko hartu-emon orekatuak ahalbidertuko dituan mundua. Halanda be, sarritan, ez da holakorik gertatzen. Onaren alde konprometitzeko indar eta adorea batzuetan nagusitu egiten dala emoten dauan txarkeriaren indarren aurrean amore emoteko arriskuan dagoz. Hain zuzen be une honeetan dogu lagun itxaropena. Barriro be laster biziko dogun Gabonen misterioak Jaungoikoa Emmanuel, Jaungoikoa gugaz, dala ziurtatzen deusku. Horregaitik ez gara sekula bakarrik sentituko. Bera ondoan dogu, gizon egin zan Mariaren birjina sabelean jaiotean. Gugaz bat egin eban lurreko erromesaldian, gure barru-barruan amesten dogun poztasuna eta bakea eskuratzen lagunduz.

Abendu aldiak, eta batez be Gabon aldiak, Jaungoikoa bera, aurre hartu, eta gure bila atara dala gogoratzen deusku. Ume egitean, Jesusek gure izatasuna bere egin eban eta bere ituna egin eban gizadi osoagaz betirako.

Kristinau itxaropenaren adierea, beraz, hauze litzateke: konfiantzazko itxarotea, prestasun eragilea eta pozezko irekitzea Jaunagaz bat egiteko. Belenen, betirako gugaz geratzeko etorri zan.

Argitu daiguzan Kristoren Jaiotzaren aurreko pertaketa-egunok itxaropenaren argi eta berotasunaz”.

REFLEXIÓN:

Del beato Juan Pablo II en la audiencia general dedicada a meditar sobre el misterio de la Navidad:

“El Adviento mantiene viva la espera de Cristo, que vendrá para visitarnos con su salvación, realizando plenamente su Reino de justicia y de paz. La evocación anual del nacimiento del Mesías en Belén renueva en el corazón de los creyentes la certeza de que Dios es fiel a sus promesas. El Adviento es, por tanto, un poderoso anuncio de esperanza que afecta en profundidad a nuestra experiencia personal y comunitaria.

Todo ser humano sueña con un mundo más justo y solidario, donde condiciones dignas de vida y una pacífica convivencia hagan armoniosas las relaciones entre individuos y pueblos. Con frecuencia, sin embargo, no es así. Las fuerzas y el valor para comprometerse por el bien corren el riesgo de ceder ante el mal que en ocasiones parece prevalecer. Es precisamente en estos momentos cuando sale en nuestra ayuda la esperanza. El misterio de Navidad, que en seguida volveremos a vivir, nos asegura que Dios es el Emmanuel, Dios con nosotros. Por este motivo, nunca debemos sentirnos solos. Él está a nuestro lado, se hizo uno de nosotros al nacer en el seno virginal de María. Compartió nuestra peregrinación sobre la tierra, permitiéndonos alcanzar esa alegría y paz a la que aspiramos en lo más profundo de nuestro ser.

El Adviento y sobre todo la Navidad nos recuerdan que ha sido Dios quien ha tomado la iniciativa para salir a nuestro encuentro. Al hacerse niño, Jesús asumió nuestra naturaleza y estableció su alianza con toda la humanidad para siempre.

Podemos, por tanto, decir que el sentido de la esperanza cristiana es el de la espera confiada, el de la disponibilidad operante y de la apertura gozosa al encuentro con el Señor. En Belén, vino para quedarse con nosotros para siempre.

Iluminemos estos días de inmediata preparación a la Navidad de Cristo con la luz y con el calor de la esperanza”.

